



**P**ozik gaude jendearen erantzunarekin eta igandeko ekitaldiak izan duen harrearekin», adierazi du Roberto Gonzalezek, Araba Euskaraz-eko komunikazio arduradunak. Igandean izan zen 2025eko Araba Euskaraz, Gasteizen, Bastida ikastolari laguntzeko helburuarekin. Aurten, Karmele Jaio izan da omendua, euskarazko literaturan egindako lanagatik eta euskararen alde egindako ekarpenagatik.

*Etengabe* lelopean egin dute aurtengoa, 45. Araba Euskaraz. Urtero bezala, bildutako dirua ikastola batentzat izango da — oraingoan, Bastida Ikastolarentzat —, baina Arabako zortzi ikastolak (Argantzón, Assa, Armentia, Amurrioko Aresketa, Aguraingo Lautada, Bastida, Audio eta Oiongo San Bizente) elkarlanean aritu dira prestalanetan, dena ezin hobeto atera zedin.

Euskararen aldeko jaialdiak hiru gune nagusi izan zituen: Armentia ikastola, Mendizorrotza eta Prado parke inguruak. Hala ere, hasierako asmoa Olarizuko parkean egitea zen, aurreko hiru aldietan bezala. Azkenik, tokiz aldatu behar izan zuten: Olarizuko belarra moztu gabe zegoen, Gasteizko Udaleren zerbitzura dauden lorezaintza langileen grebaren ondorioz. Hori dela eta, jai behar bezala egiteko bermerik ez zegoenez, antola-

# Arabian? 'Etengabe' euskaraz

Araba Euskaraz jai ospatu dute 'Etengabe' lelopean. Bastida ikastolari laguntzeko baliatuko dituzte irabaziak. Gasteizko lorezainak egiten ari diren greba dela eta, Armentia ikastolan, Mendizorrotzan eta Prado parkean egin dute jai.

Testua  
UNAI ETXENAUSIA URIBARREN

Argazkiak  
ENDIKA PORTILLO

tzaleek kokalekua aldatzea erabaki zuten. «Aurretik bi alditan egin dugu toki horietan, baina bat-bateko aldaketak inoiz ez dira errazak. Dena den, azken egunotako elkarlanari esker, lortu dugu guztia aurrera ateratzea eta Gasteizko txoko ezberdinetan egun berezi bat ospatzea», adierazi du, pozik, komunikazio arduradunak.

Eguraldi aldakorra izan arren, euriak eta haizeak ez zuten zapuztu giroa. Gasteizera bildutako milaka euskaltzale giro onean ibili ziren goizean eta arratsaldean, adin guztientzako jardueraz gozatzen. Haur eta gazteentzako tailerrak eta ikuskizunak izan ziren protagonista nagusiak.

Hiru guneetan barrena, Arai konpartsa-eko erraldoi eta buruhandiak ibili ziren ikusleen artean, giroa alaitzen. Bertan ziren Aker eta Babazorro ere, Arabako bi kirol taldeetako maskotak, etengabe argazkietan harrapatuak. Prado parkean egindako desfileek kolore eta mugimendu handia ekarri zuten Gasteizen bihotzera.

Musikak eta kalejirak ez ziren falta: Armentia ikastolako trikitalariak eta Ondarroako Kresala musika banda kaleetan barrena ibili ziren, eta Mendizorrotzan dantzak izan zuen protagonismo berezia. Besteak beste, Algara dantza taldeko Maialen Uriguen eta Udane Ozaeta nabarmendu ziren: euren emanaldiei esker, ikusleen txalo beroak jaso zituzten.

Araba Euskaraz jaialdiaren hasiera



instituzionalean, hainbat agintariren adierazpen esanguratsuak bildu zituzten, ikastolen eginkizunari eta euskararen etorkizunari buruzko hausnarketak batez ere. Unai Mendizabalek, Arabako Ikastolen Elkartearen lehendakari eta antolakuntzako ordezkari gisa, ikastolen izaera abegitsua azpimarratu zuen: «Uste orokorraren kontra, ikastolek ez diote inoiz inori atea itxi egoera sozioekonomikoaren arabera. Are gehiago: bidea leundu diogu eta leunduko diogu guregana etorri nahi duten guztiei». Hala ere, ohartarazi zuen Araba hegoaldean euskalduntzeko lana zaila dela oraindik, eta egiteko asko dagoela orain ere.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburorde Lucia Torrealdaiak, berriz, ikastolen lana goraipatu zuen, eta haien konpromisoa eskertu: «Zuen lanaren erregai konpromisoa eta gogoa da; horretan jarrai dezazuela eskatzen dizuet». Aldi berean, ohartarazi zuen gero eta jatorri gehiagotako ikasleek «euskarazko hezkuntzan aurrera jarraitzeko ahalegin berezia» beharko dela etorkizunean.

Arabako diputatu nagusi Ramiro Gonzalezek nabarmendu zuen hizkuntza zein tresna ona den kohesioa sendotzeko: «Historiak erakutsi du hizkuntzak oztopoak gainditzeko gaitasuna duela». Gasteizko alkate Maider Etxebarriak, berriz, euskararen aurkako eraso berrienei erreferentzia eginez —artean, Isabel Diaz Ayuso Madril-



«Agian udan aterako dugu zerbait, nahiz eta, urtero bezala, udazkenean egingo dugun [Araba Euskaraz-en] aurkezpen ofiziala»

**ROBERTO GONZALEZ**  
Araba Euskaraz-eko komunikazio arduraduna

«Uste orokorraren kontra, ikastolek ez diote inoiz inori atea itxi egoera sozioekonomikoaren arabera»

**UNAI MENDIZABAL**  
Arabako Ikastolen Elkartearen lehendakaria

go Erkidegoko presidentek Espainiako erkidegoetako presidenteen konferentzian izandako jarrera—, azaldu zuen euskarak babes instituzionalaren beharra duela: «Hizkuntzari babesa eman behar diogu, jasaten ari den eraso aurre egiteko».

Ekitaldian, gainera, Palestinako egoera ere presente egon zen, eta elkartasun mezuaren helarazi zuten. Aldi berean, antolatzaileek euskal eskola sistema propioa eraikitzeko eta indartzeko premia nabarmendu zuten, eta hezkuntza euskaldun eta burujabearen aldeko apustua berretsi.

**Datorrena, Amurrión**  
Amurrioko Aresketa ikastolak jaso du lekukoa, eta berak izango du 2026ko Araba Euskaraz antolatzearen ardura. Ekitaldi hungarri batean iragarri dute erabakia, eta bertan hasiera eman zaien hurrengo urteko prestaketa lanari.

Aresketa ikastolarentzat erronka handia izango da jaialdia antolatzea, baina, aldi berean, aukera paregabea izango du ikastolaren proiektua indartzeko. Hurrengo hilabeteetan, ekimenak, bilkurak eta lankidetzaren dinamika jarriko dituzte martxan. Dena dela, lanak hasiak dituzte, Gonzalezek aurreratu duenez: «Orain dela bi hilabete inguru hasi ginen hurrengo urteko prestaketa. Agian udan aterako dugu zerbait, nahiz eta, urtero bezala, udazkenean egingo dugun aurkezpen ofiziala». ●



**1 | DANTZAK**  
Haurrak nagusi izan ziren Araba Euskaraz jaiko dantza ikuskizunetan.

**2 | PUZGARRIAK**  
Puzgarrietan jolasteko aukera izan zuten ikastoletako haurrek.

**3 | ERRALDOIAK**  
Erraldioen dantza ikuskizunak bildu zuten jende gehien.

**4 | KONTZERTUAK**  
Marte Lasarte taldeak kontzertua eman zuen.

**5 | IKUSKIZUNA**  
Haurrek ere izan zuten haiek prestatutako ikuskizuna aurkezteko aukera.

**6 | EKITALDI INSTITUZIONALA**  
Arabako instituzioetako eta ikastolen Elkartearen ordezkariak bildu ziren.